29 ARABA

Zubialde errekaren goi-ibilgua



URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Laguntzailea: itelazpi

5,87 km

2 h

Hurbileko herria: **Etxaguen (Zigoitia)**

4 MIDE

Arrisku faktore bat baino gehiago dago

BAI

744 m

124 m

630 m

124 m



Ingurumen-garrantzia


Zubialde da Gorbeiako mendigunearen hegoaldeko isurialdea drainatzen duen erreketako bat. Bere goi-ibilgua baso-ingurune batetik igarotzen da, Gorbeiako Parke Naturalaren barruan. Bertan, pagadiak, erkameztiak eta ehun urtetik gorako haritzak tartekatzen dira ibaiertzeko basoarekin batera, ibilgutik gertu, haltzez, sahatsez, lizarrez eta erriberako hurritzez osatua. Horrek guztiak korridore ekologikoa osatzen du, biodibertsitate handikoa, eta ibai-ingurune urtarrari lotutako fauna- eta flora-espezie askori babesa eta habitata ematen die. Horien artean, aipatzekoak dira martin arrantzalea (Alcedo atthis), ur-zozoa (Cinclus cinclus), igaraba (Lutra lutra) eta bisoi europarra (Mustela lutreola). Ibai-inguruneak habitat egokia eskaintzen dio ingurune urtarrari lotutako espezie anfibioen aniztasun handiari. Baso-igel iberiarraren (Rana iberica) kasuan, ur garbi gardena behar du, bai eta kontserbazio-egoera onean dauden ibaiertzak ere.

Babes-figurak:

- Gorbeiako Parke Naturala.
- Natura 2000 Sarea (KBE).
- Biodibertsitate-erreserba.
- Ibai-intereseko eremua.

Zubialde errekaren goi-ibilgua





Kokapena eta sarbideak

Ibai-ingurune hori ezagutzeko, Muruaraino (Zigoitia) iritsi behar dugu, eta asfaltatutako pista hartu. Pista horrek antzinako errotaraino eramango gaitu. Bertan, aparkalekua dago. Hor, ur-bidexka hartu eta, basoan barrena, ibairantz joango gara. 100 metro ingurura, gutxi gorabehera, Magdalenako zubira helduko gara; han, ur-jariatzearen eta ibilgu osoa zeharkatzen duen ibaiertzeko basoaren lekuko izango gara. Ingurutik oso gertu, antzinako karobi bat aurkitzeko ohar edo argibide bat aurkituko dugu. Han, ehun urteko erkametzez, pagoz eta haritzez osatutako basoan barneratzen den bidexkatik jarraituko dugu. Laster, larre-eremura iritsiko gara, eta pinuak mugatzen dituen bidexkari jarraituko diogu. Bertan, Gorbeiako Parke Naturaleko bidezidor-sarea adierazten duten balizak aurkituko ditugu. Bidexkari jarraituta, erreka bat zeharkatuko dugu, Zubialderen ibaiadarra, hain zuzen ere. Ostean, lehenengo harrobiaren oinetara iritsiko gara, eta eskuinetara utziko dugu. Ibaia eta ibaia zeharkatzen duen ibia aurkitzean, bidexka txiki bati jarraituko diogu, ibaiaren ezkerraldean, eta harrobiko aparkalekuraino eramango gaitu. Aurretik, erreka ibietatik zeharkatu behar dugu, bai eta kontu handiz ibili ere, batez ere euri-eta ekaitz-uneetan, emari-aldaketekiko sentikortasun handia duen gunea baita. Handik, itzulia hasiko dugu asfaltatutako pistari jarraituz, eta abiapunturaino eramango gaitu. Ibaia ezkerretara utziko dugu. Landaredia itxia edo trinkoa izan arren, ibaiaren jarioaren soinuak haren presentzia salatzen du; eta, zenbait soilgunetan, Gorbeiako urtegiak ikusiko ditugu, Zigoitiko herri batzuk hornitzeko erabiltzen direnak.

Deskargatu ibilbidea:

KML

GPX

Ezagutu ibilbide guztiak hemen:

Wikiloc

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Laguntzailea:

itelazpi

Este sendero ha sido financiado por ITELAZPI en el marco del convenio URA_ITELAZPI

Zubialde errekaren goi-ibilgua

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Laguntzailea:
itelazpi

















Aparkalekua	1
Baso-pistarako sarbidea	2 3
Zubialde errekaren goi-ibilgua	4
Magdalena zubia	5 6
I. ibia	7
Leheneratutako karobia	8

Zubialde errekaren goi-ibilgua

Laguntzailea:

9



10



11



12



13



14



15



- Leheneratutako karobia 9 10
- Burdin-langa 11
- Igotzeko pista 12 13 14
- Mugarria 15

Zubialde errekaren goi-ibilgua

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Laguntzailea:
itelazpi

















Baso-pista	16 17 18
Zubialde erreka	19
Laminatx harrobia	20 21
II. ibia	22
III. ibia	23

Zubialde errekaren goi-ibilgua

Laguntzailea:

















Muruako harrobiko atsedenlekua 24 25

Eraitsitako presa txikia 26 27

Atsedenlekua - 'Sale el agua' ur-hargunea 28 29 30

Informazio-taula 31

Zubialde errekaren goi-ibilgua

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Laguntzailea:

itelazpi


















I. Gorbeiako urtegiko begiratokia 32 33
II. Gorbeiako urtegiko begiratokia 34 35
AMVISA - Edateko Uren Araztegia – sarbidea 36
Antzinako andela 37 38 39

Zubialde errekaren goi-ibilgua

Laguntzailea:

















Muruako harrobiko presa txikia 40 41

Muruako harrobia 42 43 44 45 46 47